ZER EGIN DEZAKEGU PERTSONA ZURIOK?



LETICIA URRETABIZKAIA GIL
EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

Udaberrian Nontokozo C. Sabic-ekin (Ubuntu Co-Create-ren fundatzailea) hitz egiteko aukera izan nuen, *Intersekzionalitatea eta pribilegioak. Zer ari dira (ez) egiten pertsona zuriak?* solasaldian. Meloia Zuritzen-ek eta Euskal Herria Bakea eta Elkartasuna Fundazioak Ecuador Etxearen laguntza teknikoari esker antolatutako *Intersekzionalitatea deskolonizatuz* zikloko seigarren solasaldia izan zen, hain zuzen ere.

Nontokozo Hegoafrikan jaio zen apartheid garaian, beraz, aktibista izatearen eta injustizien aurka Ubuntu filosofiatik borrokatzearen "bibrazioekin" jaio zen. Zaila da Ubuntu filosofia azaltzea gure buru europarrek behar dituzten hitz eta kontzeptuetan; zerikusia du komunitatean bizitzearekin, lurrarekin eta arbasoekin. Izan ere, Ubuntu eta bere arbasoak elkarrekin doaz arrazismoaren aurka proposatzen dituzten espazioetara. Pertsona zuriei eskainitako espazio horietan, Nontokozok bere amonen maitasun-energia helarazten du, begiak ireki ditzagun eta gizakiekin, lurrarekin eta planetako gainerako izakiekin partekatutako bibrazio-mailarekin berriro konekta dezagun, bereziki, nahi dugun munduari elkarrekin aurre egiteko.

Solasaldian, besteak beste, pertsona zuriok bide horretan aurrera egiteko zer egin dezakegun partekatu zuen gurekin. Lehenik eta behin, informatu, geure burua hezi eta ikasitakoa desikasi dezakegu; horretarako, tailerretan parte hartu, irakurri eta planetan gurekin batera bizi diren gainerako gizakien bizitzak nolakoak diren ulertzeko jakin-mina izan dezakegu. Batzuk dagoeneko horretan ari gara, baina gizarte eraldaketarako eta justiziarako baliagarria ez den maila mental eta indibidualean geratzeko arriskua dugu.


ZIORTZA LARREATEGI

Adimenetik jaisteko, gorputza eta nerbio-sistema lasaitzeko moduak bila ditzakegu arrazismoaz modu irekian hitz egin ahal izateko, argi izanik ez garela gu arriskuan gaudenak. Horretarako, gure gorputzak zaintzen has gaitezke: arnasa hartu, ura edan, ondo jan, dantzatu, abestu eta gure lurrarekin zein aspaldiko bertako jakinduriarekin birkonektatu –gureak ez diren beste kultur praktika batzuk gureganatu gabe–. Introspekzio sakonarekin jarrai dezakegu, geure burua epaitu gabe onartzeko zer mugitzen zaigun arrazializatutako gorputzen aurrean: beldurra al diegu? Zer estereotipo ditugu? Zergatik kostatzen zaigu hainbeste gorputz beltzekin enpatizatzea? Enpatia berreskuratzeko, gure zaurgarritasunarekin eta sentikortasunarekin berriro konektatzeko bideak bilatu ditzakegu.

Gure indibidualismotik harago joateko, zuriak izateagatik dugun traumaren inguruan kolektiboki lan egin dezakegu: nola eragiten digu munduaren arraza sortzaile eta salbatzaile goren gisa sozializatu izanak? Gorputz beltzekin konektatzeko, eraikitzeko eta harremanak izateko moduak ere bila ditzakegu, gehiago entzunez eta gutxiago hitz eginez. Gure dirua jar dezakegu nahi dituzten proiektu eta ametsak gauza ditzaten, eta gure gorputza arriskuan jar dezakegu arrazakeriaren aurka borrokatzeko, gu ez garelako horregatik hilko. Arrazismoak pertsona arrazializatuak hiltzen ditu fisikoki, mentalki eta espiritualki, bereziki pertsona beltzak, eta bitartean guk behatu egiten dugu eta egoeraz baliatzen gara. ●



A ZE FAUNA!

JAUZI HANDI BAT, IGEL TXIKI BAT SALBATZEKO



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADIKO KIDEA

Orgiko basoan (Nafarroa) sartu gara gauez. Begiak ere ohitu egin behar iluntasunera eta, beltza zirudiena hasi da argitzen. Haritzak han eta hemen. Ederrak eta galantak. Zelaia da bidea, aldaparik gabea kasik. Parez pare goaz Alberto Gosá eta biok, senda estuan barrena, hariztiko isiltasunean, ilargipean ibiltzeak ematen duen sentsazio gozagarria gorputzean sartuta dugula. Alberto, erakutsi dakizun guztia, mesedez.

Euskal Herrian baso-igel jauzkaria inork ezagutzen badu, hori Alberto Gosá baita. Arre koloreko igel txiki hau inork ikertu, jarraitu eta behatu badu urtetan, hori Alberto baita. "Baso-igel jauzkaria Europan oso zabalduta dagoen espeziea da, baina Iberiar penintsulan inguru honetan baino ez duzu aurkituko. Euskal Herri hegoaldean amaitzen da bere banaketa, eta hor oso bakana da. Leku konkretu batzuetan baino ez dago". Isilik noa. Adi. Gure katiuskek lurra kolpatzean egiten duten soinua, gaueko hegaztien kantua eta Albertoren hitzak nahasten diren atmosfera berezi honetan.

Eta heldu gara. Harizti azpian putzu bat, eta han, ez oso urruti, beste bat. Hau omen da sekretua. Europan bezala, baso-igel jauzkariak harizti putzutsuak omen ditu gustuko batez ere, haien ihiekin, ertzean ateratzen diren eremu hezeetako belarrekin eta basopeak eskaintzen dituen argi-itzalekin. Hemen, tamaina txikiko igel arre honek aurkituko ditu bere burua babesteko behar dituen sustraietako ezkutalekuak, orbelak eta egur hilak, bertan gordetzen diren zomorroekin ere gosea asetzeko. Inguru honetan, aurkituko ditu gustuko dituen urmael geldoak, negua amaitu aurretik arrautzak ureko belar finei heldu, eta poltsa borobil batean pilatuta, bertan uzteko, etorkizuneko zapaburuak noiz aterako. Baso-igel jauzkariak Euskal Herrian zerbait behar badu, etorkizuna delako.

Izan ere, baso-igel jauzkariaren populazioak ez dira oso zabalak Euskal Herri hegoaldean. Ugarienak Araban dira, isurialdeen banaketa lerrotik Kantabriako mendilerrorainoko eremuan, hariztietatik kanpo kasu honetan, gune irekietako urmaeletan. Nafarroan, Iruñeko arroan, Ultzama eta Sakana inguruan eta Bizkaian, Urduñan eta Otxandion. Izan dira beste hainbat lekutan ikusi dutela esan dutenak, baina… Erne! Lehengusuen artean nahastu gabe: baso-igelak Euskal Herrian lau izanik, haien artean nahasteko aukera asko baitago: baso-igel gorria, baso-igel piriniotarra, baso-igel iberiarra eta… baso-igel jauzkaria. Zein da zein?

Alberto Gosá urmaelaren ertza inguratzen hasi da. Pauso motzak eginez doa, mantso. Argi bat du eskuan, eta begia egina gaueko iluntasunean linternak isurtzen dituen izpiek erruteetan egiten duten dirdirara. "Hemen bat eta hemen bestea: bi". Eta pixkanaka, kontatzen hasi da, salto handi batek bere arreta deitu duen arte. "Heldu bat belar artean!" egin du oihu ahopeka, hariztia esnatu nahiko ez balu bezala. Hiru pauso gehiago eman, eta orbelaren eta belarraren arteko landaretzan ezkutatuta zegoen igelak are eta salto handiagoa egin du. Harrapatu dugu.

Albertok esku artean hartu du eta betaurrekoak sudur-puntara gerturatu ditu, ohi duen modura. Dibulgatzaile sena barruan darama: "Sabelaren alde bietara duen krema kolore hau ikusi, Iñaki, eta muturra zertxobait luzangagoa, baso-igel gorriak baino. Hankak ere, hala doblatuta [mugimendua eginarazi dio igelari], luzeagoak direla ikusten da". Albertok zalantzarik gabe hitz egiten du. Espezie honen ikerketan sarturiko orduek ematen dioten ziurtasunarekin. Alberto Gosá da gure aditua. Gure maisua.

Klima aldaketaren aurrean, putzuak bakantzen joango omen dira, eta aldapa gabeko gune zelaiak urbanizatzeko edota nekazaritza partzela handiz betetzeko joerak freno askorik ez duela dirudi. Igelaren populazioak jada isolatuta daude, hein handi batean. Espezie bitxi eta isil hau gure biodibertsitatearen parte den heinean, administrazioa hasia da, halabeharrez, bere aldeko neurriak hartzen. Jauzia, ordea, handia izan beharko da igel txiki honentzat. Harizpeko urmael ertzek jarrai dezatela salto handi horien gordeleku izaten. ●

BASO-IGEL JAUZKARIA

(Holothuria spp.)

TALDEA: Ornoduna / Anfibioa.

NEURRIA: 65-80 mm.

NON BIZI DA? Urmaelak dituzten hariztietan, gune irekietan…

ZER JATEN DU? Ornogabe txikiak.

BABES MAILA: Europa mailan eta Hego Euskal Herrian babestuta dago.



ANDER IZAGIRRE EGAÑA

AIREZ EGINAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Tarteka, han-hemenka, landareen bizimoduaz ikastaldi antzeko batzuk ematen ditut. Jendearekin eman-hartu ugari sortzen da, dasta onekoak, mamitsuak, gatzdunak, era guztietara hazkurritsuak. Landareekin zerikusia duten gai asko azaltzen dira, izan ere, nik beti galderak erantzun besterik ez ditut egiten, eta bakoitzak bere galderak egiten ditu: baratzea, lorategia, etxeko landareak, basoa, mendia, fruitu arbolak, haziak, makilak, elikagaiak gordetzeko erak, inausketak, lanen sasoiak, bertokoa-kanpokoa…

Ikastaro horietan, sarreratxo batekin hastea gustatzen zait, landareen bizimoduaren oinarriak azalduz. Hazi batetik sortu eta fruituan bere haziak emanez osatzen den hilabeteetako edo urte mordo bateko bizitza horren funtsa edo fundamentua. Gutxi-gehiago landare gehienetan oso antzekoa den hurrenkera: hazia-sustraia-"enborra"-hostoa-erreserba-lorea-fruitua-hazia. Landarearen zati horietako bakoitzak zer funtzio duen eta nola lan egiten duen ulertuz gero, tantoaren erdia gurea da. Hor daude galderetan azaltzen diren zalantza ia denen erantzunak. Galdera egin aurretik edo eginda, berdin da, hausnartu behar da zer eragin duen horrek landarean. Landarearen tokian jartzea da gure zalantzak argitzeko erarik onena, landarea bezala pentsatzen jartzea.

Landarea sortu duen hazitik landareak berak sortuko duen hazira arteko hurrenkera horretan zer gertatzen den kontzientzia hartu eta pentsatze hutsak garunetako hauts asko harrotzen ditu.

Gure ezagutza eta ikuspegi motzetik, landareen ezaugarririk nabarmenenak hiru dira.

Baga: ez dira mugitzen. Horrek egoera deserosoetara eta une latzak bizitzera eraman ditu milioika urtean, eta ondorioz, irauteko eta bizitzeko sekula erabat ezagutuko ez ditugun adina martingala, azpijan eta azpilan sortu eta perfekzionatzera, maila gorenetan bikaintzera, eraman ditu.

Biga: bizitzeko hazi egin behar dute. Urte asko bizi diren landareek, zuhaixkek eta zuhaitzek zurezkoa edo zurkara den egitura sortu beste aukerarik ez dute. Egitura hori zahartzen den eran, urtero azal berri bat eman beste aukerarik ez du, landarearentzako eguneroko ogia den izerdi gordinaren eta onduaren gorabeherari eutsiko badio. Hortik enbor bat mozten denean ikusten ditugun arandelak; gehienek urtean bat sortuko dute eta zenbaitek, urteko klimaren arabera, baita bi ere.

Higa: landareak bere buruari eusteko gai dira, burujabe dira bere jakiak sortzeko. Guk, animaliok, bizitzeko besteren bat hil behar dugu: oilaskoa, letxuga (*Lactuca sativa*), eta abar; egunero hiltzaile. Haiek lurrean kide, lagun, apopilo, maizter, bezero eta edozein eratako eman-hartuan zaildutako milaka lankideren bidez ura eta mineralak hartuko dituzte, eta hostoetara eramango. Eta hostoetan mundu honetako bizitza oso-osoari eusten dion mirakulua gertatzen da: fotosintesiaren medioz bere janaria sortzen dute. Argiaren energiarekin, airetik karbono dioxidoa hartu, sustraietatik dakarren uraren molekula hautsi eta azukreak ekoitziko ditu; eta beste bizidun ia guztiok oinarrizkoa dugun oxigenoa askatzen du airera.

Mirakulu horretan garrantzitsuena airetik hartzen duena da. Karbono dioxidoa izango da bere jakien oinarria. Beraz, landareak ia erabat airez eginak dira. Bruselako Jan Baptista van Helmont mediku-kimikari-filosofoak asmatutako esperimentu bat argitaratu zuen bere semeak 1648an. Fotosintesia badela eta berau ulertzen hasteko lehen urrats gisa aitortzen da saio hori. 90 kg lur zuen loreontzi batean, 2,3 kilogramoko zume adar bat (*Salix spp.*) landatu zuen. Bost urtez, ura besterik ez zion eman. Landareak 74 kg irabazi zituen, baina lurrak ia pisurik ez zuen galdu; arrautza ertain baten pisua, 57 gramo. Bere ustez, urak osatu zuen zuhaitza. Gaur badakigu: zuhaitzaren elikagai diren azukreak batik bat aireko karbono dioxidotik sortzen ditu, uraren hidrogenoarekin osatuta.

Hurrena egurra edo zura edo zuhaitza ikustean, badakizu: ia den-dena airea da. ●



OITTURRI

BERTAKO ZUHAITZ ETA ZUHAIXKEN MINTEGI BERRIA SORALUZEN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Landare eta zuhaixkak ekoizteko afizioa aspalditik izan du Jon Oñederra Rascon soraluzearrak (Gipuzkoa), baina iaz sortu zuen Oitturri mintegia eta modu profesionalean ekoizten hasi zen, Arrate Espilla Iriondo bikotekidearekin batera. Soraluzeko Baso Biziak taldeko bazkide zen lehenagotik Oñederra, bazuen bertako basoaren alde bere alea jartzeko gogoa, eta Mungiako (Bizkaia) Iñaki Larrinaga ekoizleak animatu zituen saltoa ematera. "Baso Biziak egitasmoak jardunaldiak antolatu zituen 2022an, hor ezagutu genuen Mungiako bere mintegia, eta hor hasi ginen proiektua abiatzeko ideiarekin bueltaka", kontatu du Rasconek. Aurretik, 2015ean, lagun talde batekin modu kolektiboan bertako zuhaitzak bultzatzeko mintegi txikia jarri zuten martxan, eta hori ere izan zen gaurko proiektuaren lehen hazia.

BASO BIZIRAKO, BERTAKO ESPEZIEAK

2024an Baserritar Mixto Profesionalen egitasmora aurkeztu zuten proiektua Oitturriko kideek, eta onartu egin zioten. "2025ean makineria sartu eta pistak hobetzen, ingurua prestatzen, itxiturak eta ureztatze sistemak jartzen eta biltegia eraikitzen aritu gara, besteak beste". Bere beste laneko jardunaldia murriztuta, jardunaldi erdian ari da mintegiko lanean: "Prestatu dugun lur horretan eginen dugu lehen landaketa handia, orain arte gehiago izan da pixkanaka probatzea, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikusteko".

Soraluzeko Txurruka auzoan dago mintegia, eta bertako espezieak soilik ekoitziko dituzte Oitturrin: "Horretan sinetsi dugu beti", berretsi du. Haritzak, gereziak, lizarrak, astigarrak, urkiak, gaztainondoak, erramuak, sagarminak, arteak eta makatzak ekoitziko dituzte, besteak beste. "Alde batetik zura ateratzeko espezieak ditugu, haritzak eta beste, baina baditugu beste batzuk biodibertsitatearen babesari begira ekoizten ditugunak, lur mugimenduak ekiditen dituztenak edo animaliei jaten ematen dietenak, adibidez". Zigilu ekologikorik izan ez arren, mintegian lan egiteko duten modua guztiz ekologikoa dela nabarmendu du soraluzearrak.

HAZITIK ZUHAITZERA

Hazitik ateratzen dute dena Oitturrin, eta horretarako, lehenbizi, basoan ibiltzen dira haziak biltzen. "Probak egiten aritu gara inguruan bildutako haziekin eta inguruko jendeari ere galdetu diogu zuhaitz onak identifikatzen laguntzeko". Behin haziak bilduta, hozkailuetan gordetzen dituzte neguan erein ahal izateko. "Haziak ereiten ditugunetik zuhaixka lortu arte urte pare bat behintzat pasatu behar dira, oraintxe hasi gara gu lehenengoak saltzen". Izan ere, landaketa handia aurten eginen badute ere, lehenagotik probak egiteko ekoitzi dituzten aleak merkaturatzen hasi dira.

Zuzeneko salmenta lehenetsi dute Oitturriko kideek. "Zuhaitz eta zuhaixkak mintegian bertan saltzea da gure asmoa, baina aurrerago beste banaketa punturen bat ere jarriko dugu, mintegia urruti xamar dago eta". Proiektu oso berria da oraindik balorazioak egiteko, baina katalogoa atera berritan izan duten erantzunagatik, ekimenak interesa behintzat piztu duela sumatu dute kideek. ●



